

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Nor da datu pertsonalak tratatzeko arduraduna?

Datu pertsonalak tratatzeko arduraduna Berriobeitiko Udala da (Berriobeitiko Udaletxe plaza 1, Nafarroa).

Udalak datuak babesteko ordezkari bat izendatu du, eta helbide elektronikoa honetan jar zaitezke harremanetan: dpd@berrioplano.es

Zertarako tratatuko ditugu datuak?

- Matrikulazioak kudeatzea. Izena emateko prozesuaren emaitzaren berri ematea, itxaron-zerrenden berri ematea. Informazio hori udalaren webgunean, udaletxeko iragarki-oholean eta eskoletako tauletan jarriko da, esleitu zaizuen espediente-zenbakia erabiliz.
- Eskolan behin betiko onarpena kudeatzea, eta egon daitezkeen itxaron-zerrendak mantentzea eta kudeatzea.
- Eskolan ikasleei arreta emateko zerbitzua eskaintzea
- Familiei edo tutoreei seme-alaben bilakaeraren berri ematea, eta eskolarekin bilera orokorrak eta banakakoak deitzea.
- Kobratzeko, kobrantzak kontrolatzeko eta ez-ordaintzeak premiamendu-bidera bidaltzeko ordainagiriak kudeatzea.
- Familiei informazioa bidaltzea (argazkiak eta bideoak). Balio historikoa dutela uste bada, helburu horrekin gordeko dira.

Nola mantenduko dugu eguneratuta emandako informazioa?

Gurasoek eta tutoreek jakinarazi behar diguzue, ahalik eta lasterren, hasieran aurkeztutako dokumentazioan emandako datuetan gertatutako edozein aldaketa.

Zein araudik legitimatzen gaitu tratamendu hori egiteko?

Legitimatuta gaude datuen tratamendua egiteko botere publikoak egikaritzeko eta gure eskumenak betetzeko (DBEO, 6.e) hurrengo araudian ezarritak daudelarik:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 9/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horretako hezkuntza-edukiak ezartzen dituena.
- 59/2023 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa, Hezkuntza kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako irakaskuntzak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa arautzen duena.
- 69/2023 Foru Agindua, abuztuaren 21ekoa, Hezkuntza kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan hezkuntza inklusioa arautzen duena.
- 12/2022 Foru Legea, maiatzaren 11koa, haurrak eta nerabeak zaindu eta babestekoa eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.

Bestalde, zuen seme-alaben irudiak tratatzeko baimena eskatzen dizuegu.

Zenbat denbora gordeko ditugu datuak?

Administrazio publiko bat garenez, erantzukizunak ditugun bitartean informazioa gorde behar dugu eta Agiritegiei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legeak adierazten diguna kontuan hartuz.

Nori lagako dizkiogu datuak?

Datu pertsonalak lagatzeko, gurasoen edo tutoreen baimena beharko da, hori baimentzen duen legerik badago, izan ezik.

Datuak ikastetxeei jakinarazi dakizkieke, erantzun inklusiboa koordinatzeko eta 69/2023 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera sarean lan egiten duten kanpoko eragileekin kanpoko koordinazioa egiteko.

Eskubideak

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzenak ez badira zuzentzeko, eta datuak ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko eskatzeko. Horretarako, eskolako helbidera edo Berriobeitiko Udaleko erregistro orokorrera jo beharko dute.

Era berean, interesdunek erreklamazio bat aurkez dezakete Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan, Jorge Juan kaleko 6, 28001 zenbakian (Madril) edo www.agpd.es helbide elektronikoa.

Eta zer egingo dugu irudien tratamenduarekin?

Haur Eskolan irudiak, argazkiak eta bideoak biltzen dira, helburu hauekin:

- Haurren garapen- eta/edo ezagutza-prozesuak eta/edo -egoerak dokumentatzea, lanak prestatzeko, eskolako memoriak prestatzeko, paperezko edo elektronikako hainbat formatutan argitalpenak egiteko.
- Eskolako haurrek, familiak, hezitzaileak eta eskolako beste dokumentazio-leku batzuetan (telebista, panelak, albumak, etab.) ikus ditzaten.
- Familiei euskarri digitalean ere eman dakizkieke, familiaren eremu pribatuan ikus ditzaten, eskolan egindako ekitaldien irudiak.

Eskolak antolatzen dituen ekitaldietan, irudiak, bideoak... lor ditzakezue?

Ohartarazi behar dizuegu beste pertsona batzuk agertzen diren irudien tratamenduak erabilera pribatua, familiarra, lagunartekoa edo etxekoa izan behar duela, datuen babesari edo ohorerako eta norberaren irudirako eskubideari buruz indarrean dagoen araudiaren ondoriozko erantzukizunik izan ez dezazuen. Irudiak sare sozialetan argitaratzea erabakitzen baduzue eta beste pertsona batzuk agertzen badira, ez ahaztu baimena beharrezkoa dela.

IRUDIA ERABILTZEKO BAIMENA

_____ jauna/andrea _____ aita/
ama/tutorea

Baimena ematen dut irudia adierazitako helburuekin erabiltzeko.

Ez dut baimenik ematen irudia adierazitako helburuekin erabiltzeko.

Data eta sinadura:

Emandako edozein baimen ezeztatzeko, eskolako zuzendaritzara jo ahal izango duzu, eta ezeztapena formalki dokumentatu.